



**2023KO ABUZTUAREN 1EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko abuztuaren 1ean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2023ko uztailaren 17an egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 55 zenbakidun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA BOST MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIRU euro ETA HIRUROGEITA HAMABOST zentimokoa (65.173,75 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- LAZKAOKO DATUM ALTIMETRIKOA ALDATZEKO ETA OINARRIZKO KARTOGRAFIA EGUNERATU ETA ERAIKITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.

Udal zerbitzu teknikoek, Lazkaoko datum altimetrikoa aldatzeko eta oinarritzko kartografia eguneratu eta eraikitzeko zerbitzua kontratatzeko beharra adierazi dute. Honenbestez, administrazio klausula zehatzen agiria, baldintza teknikoen plegua eta kontratazio espedientea prestatu dituzte.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzordeak, aho batez, honakoa erabaki du:

Lehena.- Lazkaoko datum altimetrikoa aldatzeko eta oinarritzko kartografia eguneratu eta eraikitzeko zerbitzuaren kontratazio espedientea eta honek barne hartzen dituen baldintza teknikoen eta baldintza administratiboaren pleguak onartzea.

Bigarrena.- Lizitazio deialdia egitea iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuz.

IV.- 2022KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGAN ALOKAIUARENGATIHO OBARIA.

Udal honek %50eko hobaria araututa dauka Ondasun Higiezin en gainko Zergan Alokabideri emandako etxebizitzentzat edota beste bide batetik alokatutako etxebizitzentzat.

2022 ekitaldian zerga ordaindu eta egoera horretakoren batean daudenek hobari hori eskatu ahal zezaten, 2023ko maiatzaren 25etik ekainaren 16ra bitarteko epea ireki zen.

Epe horretan aurkeztutako eskaerak, eta hobaria lortzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertu ondoren, ogasun batzordeko zinegotzi arduradunak hobari horiek onartzeko proposamena egin du.

Proposamenean, 42 laguni guztira HIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMA ZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMABOST zentimo (3.377,55 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espediente an jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hauek onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarreren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

V. EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Norgehiagoka-erregimenean euskararen sustapenerako dirulaguntzen 2023rako deialdiak aurkeztu dira bere onarpenerako.

Euskararen sustapenerako dirulaguntzen deialdi hauek bi jarduera hartzen dituzte bere barnean, bata euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzak eta bestea gida baimena euskara ateratzeagatik dirulaguntzak.

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2023ko euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzen deialdia eta gida baimena ateratzeagatik dirulaguntzen deialdiak onartzea erabaki du.

VI- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) honako kontsulta hauek egin dtu:

- Batetik fraileen eraikuntzaren parean kartel bat jarri dutela dio etxegabete bat salatuz, eta ea Udalak honen berri izan al duen. Alkateak ezezkoa erantzun dio, Udalak ez duela horren berririk izan.
- Bestalde, Hirutxikin presan zerbait egin ote duten galdetu du, handitu ote duten edo. Alkateak erantzun dio baietz, Udal arkitekto teknikoa jarri zen jabearekin harremanetan. Honek guarda jakinaren gainean jarri zuela esan zion, baina haren kompetentzia ez zela, ur konfederazioarena dela. Arkitekto teknikoa ur





LAZKAOKO
UDALA

konfederazioarekin harremanetan jarri da eta idatziz eman zaio honen berri, baimenduta dagoen edo ez jakiteko.

- Azkenik, Lazkaon AHT-a pasako ote den Udala informatu ote duten galdetu du. Alkateak dio Udalari ez zaiola jakinarazpenik iritsi.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko ordu biak eta berrogei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA